



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

HIRUGARREN ZATIA

DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZA



1.-EUSKAL GIZARTEA ETA HEZKUNTZAREN HELBURUAK

Hezkuntzak belaunaldi gazteen trebakuntzaren alde lan egin behar du. Hauek dira etorkizunean gizartea zuzenduko dutenak eta horretarako behar den moduan heziak izan behar dute. Komunitateak eskatzen duen zeregin sozialak pixkanaka bere gain hartzeko prestatzen joan behar dira gazteak. Prestakuntza prozesu honi sozializazioa deitzen diogu eta batez ere familiaren, eskolaren, berdinen taldearen eta kolektibo sozialen erantzukizuna da. Durkheim-entzat (2003) gizabanakoaren sozializazioa, bereziki, bi alderdiz arduratzen da: bata indibiduala (garapen pertsonala) eta bestea kolektiboa (soziala izatea). Noski, prozesu horrek, pertsona bere inguru sozialarekin elkarrekintzan egotea eskatzen du: “Sozializazioa gizartea eta gizabanakoaren arteko elkarrekintza prozesua da; horrela, gizabanakoak komunitatearen kideen gehiengoak partekatzen dituen arauak, ohiturak eta baloreak barneratzen ditu; taldean barneratzen eta txertatzen da; sozialki jokatzeko ikasten du; instituzioetara moldatzen da; besteengana ireki eta beraiekin bizi da; eta kulturaren eragina jasotzen du bere nortasunaren garapenari kalterik egin gabe” (Fermoso, P., 2000:91).

Sozializazioak zenbait prozesu eta elementu hartzen ditu osotasun bat eratuz:

- Harremanetarako gaitasuna besteekin: gizabanakoa ez da bakarka errealizatzen, besteen beharra dauka.
- Gizartera eta erakundeetara moldatzea: eskakizunetara, azturetara eta ohitura sozialetara egokitzea.
- Gizarteratzea: taldeetan eta instituzioetan parte hartzea, horien funtzionamendura moldatzea eta beraiekin lankidetzan aritzea...



- Ikasketa: trebetasun eta rol sozialak praktikan jartzea eta trebatzea (arauekiko errespetua adieraztea...).
- Pertsonen arteko elkarriketa eta komunikazioaren bitartez elkarrekintza.
- Bizikidetasuna: gizabanakoen eta kolektibo sozialen arteko adeitasunezko harremanak, lankidetzak eta solidaritatea, etab.
- Norbere kultura, baloreak, kode etikoak, identitate ezaugarriak, etab. barneratzea.

Lehenago zehazten genuen bezala, umearen bizitzan eta etorkizuneko herritarrarengan agente sozializataile gakoak familia, eskola, bere parekoen taldea eta kolektibo sozialak dira. Zer rol jokatzen du horietako bakoitzak?

-Familia: gizabanakoak hazkundearen lehen urteetan eta helduek daukan txoko garrantzitsuena da. Umearen sozializazioaren oinarritzko erreferente bihurtzen dira. Familiak umeen sozializazioan dituen funtzioak babesean (defentsak kodeak, gaixotasunen aurreko arreta...), afektibitatea ematean (maitasuna, laguntza emozionala... ematea), hezkuntzan (arauak, baloreak eta kodeak... ikastea), sostengu ekonomikoan, etab. oinarritzen dira.

-Eskolaren oinarritzko helburua familiak hasitako lanaren laguntza eta osagarria izatea da. Horregatik, bi instituzio horien jarraibideen arteko koordinazioa ezinbestekoa da ikaslearen osoko trebakuntza lortzeko.

-Berdinen taldea gaztearen sozializatorako oinarritzko mugarria da. Koadrilak nerabezaroan protagonismo handia hartzen du.

-Kolektibo eta mugimendu sozialak integrazioaren prozesu dira baita ere. Gaztea horietako batekin identifikatuko da eta besteekin adostasunik eza adieraziko du. Instituzioak kontzientzia kolektiboa argitzen dute, ikuspegi



berriak ematen dituzte eta gizabanakoak komunitatean integratzearen alde agertzen dira.

-Komunikabideak gizabanakoen hezkuntzan eragin handia daukate batez ere barreiatzen dituen mezu ugartasun handiagatik. Iritzi eta bizitza moten errefortzua enpresa mediatiko handien oinarrizko funtzioetako batzuk dira.

Herritarren sozializazio prozesua zenbait faktorez eta hainbat zirkunstantziaz baldintzatua dago:

-Lehenengo sozializazioaren (familia) eta bigarrenaren (eskola) arteko mugak lausotzea. Familiaren eta eskolaren funtzioak ez dira zehatzak, eta askotan, ez dago koordinaziorik bien artean.

-Familiako kide bat gehiago ordaindutako lan munduan sartzeak umeak ikastetxeetan lehenago sartzea eragin arazi du. Ondorioz, egunaren zati handi batean zenbait funtzio betearazi dizkio eskolari (babesa, zaintza, aisia, etab.).

-Eskolari lotutako erakunde sozialen eta zenbait gurasoen aldetik emaitza akademikoak lortzeko presioak ere ez du ikastetxeetako trebakuntza lana errazten.

-Etxean IKTak egotea etxetik irten gabe beste errealitateetara eta inguruetara sarbidea ahalbidetzen du. "Hautzaroko heriotza"ri buruz hitz egiten da, telebistaren errotze handiagatik. Hautzaroan nerabezaroko forma kulturalak eta jarraibideak behar baino lehenago aurkitzea, kaleko jolasaren etapak alderatu eta saihestu egiten dira, etab. Umeak eskura duen informazio bolumena izugarrizkoa da, eta gainera, inolako filtrorik gabekoa. Horrek, teknologia berriak familia, hezkuntza, gizartea, etab. esparruetan daukaten eragina aztertzeraz eramaten gaitu.



Garai honetako umeen gaitasunik eza ez dago esparru kognitiboan, baizik eta, batez ere, alderdi afektiboetan eta moraletan. Mende hasierako eskolaren erronka handiena eskolan eta oro har gizartean bizikidetzaren, baloreen eta ikasleen jokaeraren inguruko gaietan planteamenduak eta ildoak garatzean oinarritzen da. (Pérez Gómez, A., Torreblanca, J., 2002: 25-en).

Zirkunstantzia, baldintzapen eta egoera sozial hauen aurrean, euskal herritarren sozializazioa lortzeko zein helburu bultzatu behar ditu derrigorrezko hezkuntzak? Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, 26. artikuluan, ondokoa adierazten du:

“Hezkuntzaren helburua gizakiaren nortasunaren erabateko garapena eta giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetua indartzea izango da; nazio guztien eta talde etniko eta erlijiozko guztien arteko ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna sustatuko ditu”.

Europako Batzordeak ikasle gazteen hezkuntzak jarraitu behar dituen joerak eta ildoak argi uzten ditu: “Hezkuntzaren oinarrizko zeregina gizabanako bakoitzari potentzial guztia garatzen eta erabateko gizakian bihurtzen laguntzea da, eta ez ekonomiarako tresna batean; ezagutzen eta gaitasunen jabetza izaeraren hezkuntzarekin, kulturarekiko zabalkuntzarekin eta erantzukizun soziala esnatzearekin lagundu behar da.” (Europako Batzordea, 1995:27). Gizarteak hezkuntza sistemarengandik alderdi zientifikotik eta hezigarritik trebakuntzaren bultzada espero du, eta baita baloreak eta erantzukizun soziala sustatzea ere. Zorroztasun zientifikoan eta gaitze akademikoan oinarritutako hezkuntza asmaketa zein balore hiritarrak eta moralak sustatzea eta garatzea izan behar dira kontuan. Bi alderdi horiek ez dira baztertzailak.



Hezkuntzaren oinarrizko helburuak, beraz, gizabanakoaren nortasunaren erabateko garapenean eta gure gizarteko etorkizuneko herritarrarengan jartzen du arreta. Lan konplexu honek zenbait kolektibo sozialen parte-hartzea eskatzen du, belaunaldi berrien sozializazioa zeregin kolektiboa baita argi eta garbi. *“Gizakia soilik gizartean bizi delako da gizaki”* (Durkheim, E. (2003:69).

Gizarte bakoitzak, bere historiaren fase bakoitzean, bere kideen sozializazioa antolatzeko joera dauka ezaugarrien eta lehentasunen arabera. Zaila da sozializazio unibertsalaren kontzeptua mantentzea komunitateak bizitzeko moduen, zirkunstantzien eta premia gehien duten beharren arabera aldatzen baitira. Gizabanakoaren identitatea bere niaren eta komunitatearen arteko elkarrekintzan dago osatua. Herritarrak bizi deneko gizartearen oinarrizko gertaera historiko, politiko, ekonomiko eta kulturalen (nahiz eta horiek ez izan bakarrik) inguruan hausnartzen eta aztertzen du.

Hezkuntza sistemak trebakuntza zientifikoa eta morala bermatu behar du pertsona lan munduan sartzeko eta aldi berean, gizartean parte hartzeko eta norbaiten alde egiteko herritarren kultura sortzeko eta sustatzeko. Bi jarduera ildo zabal horiek gizabanakoaren sozializazio orekatuaren eta osokoaren bermea eta oinarria dira.

A.-Enplegurako trebakuntza.

Hezkuntzaren oinarrizko erronketakoa gazteen lan-munduratzeara da. Hezkuntza sistemak sektore horretan sartzeko ere gaitasuna eman behar du. Gaur egun, ikasleak gehiago prestatzen dira lan egiteko aukera gehiago izateko. Lan merkatuan dagoen lehiakortasunak ikasleen gehiegizko erantzukizun prozesua sortzen du arrakasta handiagoko lan-munduratzeara lortzeko.



Gainera, lanaren muturreko ezegonkortasun egoera eta legeria malgutzea eta ez erregularizatzea ziurgabetasun handiko egoera sortzen ari dira. Sektore ekonomikoa aldakorra, aurretik ezagutu ezin dena eta izugarri lehiakorra bihurtzen ari da. Hezkuntza sistemak ematen duen trebakuntza erantzuna egoera honen arabera moldatu behar da. Ikasten ikasteari lotutako gaitasunak, bizitzan zeharreko prestakuntza, ekintzailletza, moldagarritasuna eta etengabeko hobekuntza gizabanakoa laneko sektorean zein sektore ekonomikoan sartzeko ezinbesteko bihurtzen dira.

B.-Herritartasunerako prestakuntza.

“Herritartasunerako heztea” adierazpenak “gizartean hautemateko, ulertzeko, interpretatzeko eta parte hartzeko gaitasuna garatu eta ahalbidetzeko umeen eta gazteen sozializazio prozesuetan modu esanguratsuan parte hartzeko beharra”ren inguruko ezinegonak jasotzen ditu. (Marco, B. 2002:12). Autore berak gizarte demokratikoen herritar burutsuak osatu behar dituztela adierazten du, iritzi propioa eratzten dakitenak, gizarte erabakietan gogotsu parte hartzen dutenak eta komunitatearekiko gizabanakoaren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dutenak.

Hiritar prestakuntza eskolak hezkuntza instituzio moduan garatu beharreko funtsezko helburuetakoa da. Aurreko garaietan, familia eta eskola balore moraletan herritarrak hezteko helburua betetzen zuten instituzioak ziren. Egun, bi instituzio horiek bizi ditugun garaietarako adostutako eta goitik beherako bizikidetza modelo egokia finkatzeko zailtasun handiak adierazten dituzte.

Hezkuntza moralaren ardurarik ezak eta estimu urriak giza funtzionamenduaren oinarrietan izugarritzko eragina dauka. Egun gure



instituzioetan dauden bizikidetza arazoak (enpresetan, eskoletan, erakundeetan, etab.) kezkarriak dira. Herritar prestakuntza bultzatzea beharrezkoa da lehiakortasun ekonomikoan arreta gehiegi jartzen duen eta gizarte eraginkortasun ezean murgilduta dagoen gizartearen gabeziak konpontzeko. Euskal Eskola Publikoaren helburuetan herritarrarentzako hezkuntza sartzeari beharrezkoa da. Hori burutzeko erantzukizuna familiarekin eta kolektibo sozialekin batera partekatu behar da.

Irakaskuntza publikorako (eta laikorako) prestakuntza morala gure ikastetxeetako bizikidetza sustatzeko oinarritzako gotorleku bihurtzen da. Gure hezkuntza sistemak ardura handiz babestu behar ditu norabide horri eta gizarte demokratikoago, solidarioago eta pluralago bat lortzeari jarraitzen dioten ekimen guztiak.

Azken finean, hezkuntzaren helburuak gizarte zehatz batek baliotsu moduan identifikatutako premia soziokulturalen aukeraketaren arabera zehaztu behar dira. Euskal Herrirako Curriculumaren helburua belaunaldi berriak parte hartzen duten hezkuntza esperientzietan, printzipio demokratikoekin herritar solidarioen, arduratsuen eta konprometituen sozializazioa eta gaikuntza lortzeko helburuarekin erabilgarriak izatea da.

Ikastetxeetan garatutako irakaskuntza eta ikaskuntza esperientziak ikasleak euskal gizartearen sartzen eta integratzen lagundu behar dute. Datozen urteetako hezkuntzaren erronka esanguratsuenen artean honakoak nabarmendu ditzakegu:

- Hezkuntza bizitzan zehar bideratzen den ondasun komun bezala sortzea (ikasten ikastea, birziklapena, etengabeko prestakuntza...).
- Herritar guztientzako hezkuntzaren kalitatea eta ekitatea ezartzea, aukera-berdintasuna bermatzeko dagokion elementu konpentsatzaileak ezarriz, batez ere, gure gizartearen kolektibo gutxietsienetan.



-Bizikidetzaren eta baloreen bultzada hezkuntza eta gizarte estrategi demokratikoagoen eta solidarioagoen bitartez. Eskola Publikoak eta Euskal Herrirako Curriculumak irakaskuntza ez konfesionala eta laikoa eta zenbait sektoreen eta kolektibo sozialen integrazioan, gure komunitatearen pluraltasuna eta aniztasuna onartzean eta herrien banakako eskubideak eta eskubide kolektiboak errespetatzean oinarritutako jarduera eta ekimen modeloak sustatu behar dituzte.

Atze-ohial moduan hiru jarduera-ildo zabal horiek edukiz, Euskal Herrirako Curriculumak ondoko helburuak sustatu beharko ditu:

- Euskal herritarren nortasunaren erabateko garapena.
- Garapen intelektuala, ezagutza zientifikoak eta historiari, kulturari, ekonomiari, teknologiari, zenbait hizkuntzei, etab. loturiko gaitasunak.
- Osasun fisikoarekin eta psikikoarekin, garapen emozionalarekin, gorputz-zainketarekin, prebentzioarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin loturiko ohituren sustapena.
- Euskal Herriko hizkuntzak menperatzea, atzerriko hizkuntzak eta zenbait adierazpen forma ezagutzea (artea, musika, IKTak...).
- Giza baloreen sustapena eta oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzea, bi sexuen arteko berdintasuna, tolerantzia eta pertsonen, kolektiboen, arrazen eta herrien arteko berdintasuna.
- Prestakuntza prozesuan ikaslearen ikasketetan, gainditze pertsonalean eta jarrera sortzailean eta ekintzailean erantzukizuna eta konpromisoa.
- Euskal Herriko etorkizuneko herritarren sozializazioa erabateko eta diskriminaziorik gabeko parte hartzea lortzeko gizartearen hainbat alderditan (lana, kultura, ekonomia, aisia, bizitza soziala, artea, hezkuntza, etab.).

Eskolak, curriculumak eta hezkuntza komunitateak beste agente sozialekin batera parte hartu behar dute etorkizuneko euskal herritarra oso-osorik prestatzeko lan konplexu eta zail honetan.



2.-IKASLEAREN OINARRIZKO GARAPEN ESPARRUAK DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAN

Belaunaldi berriak hezteko erantzukizuna ez da lan erraza. Mendebaldeko gizartearen aldaketa bizkorrak herrialdeak prestakuntza sistemak moldatzera, malgutzera eta modernizatzen behartzen dituzte. Azken hamarkadan zenbait estatuk bizi dugun zibilizazio zorrotz, alderdi askoko eta globalizatuan Europako ikaslea integratu ahal izateko gaitasun gakoak zehazteko eta identifikatzeko lan zailari ekin dio. Zehazki 2001. urtean Europar Batasunak gizartean integratzeko herritar orok menderatu behar dituen oinarrizko trebetasun guztiak identifikatzeko ardura aditu talde bati eman zion. Ikerketa horren emaitzak kontinentearen errealitatea ezberdina eta plurala dela adierazten dute. Hezkuntza sistema ezberdinen artean gaitasun berdinak daudela egia bada ere, nazioen arteko ezberdintasunak ere handiak eta nabarmenak direla adierazi daiteke.

Euskal Herriko kasuan, gure inguruko beste herrialdeetan bezala, derrigorrezko irakaskuntzaren errealitateak gure ikasleen artean gero eta heterogeneotasun handiago dagoela esaten digu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikastetxeetan bizikidetzaren inguruan egindako ikerketa batean (Ayerbe eta Aramendi, 2006) etapa honi loturiko zenbait arazo azaltzen dira, esaterako, zenbait ikastetxeetan bizikidetzaren asaldurak, ikasgelaren erritmo "normala" jarraitzeko zenbait ikasleek dituzten zailtasunak eta egoera honi eratoritzen zaizkion eragozpenak (gelan aspertu edo molestatzen duten ikasleak...), gazteen irakaskuntza eta irakaskuntza prozesuak doitzeko irakasleen gaitasun eskasa, ibilbide berezietan inguruko irizpide eskasia, etab.




Aurrerago derrigorrezko irakaskuntzaren helburua gizabanakoaren nortasunaren garapen osoa dela adierazten zen. Zein trebetasun bultzatu behar ditugu helburu hori lortzeko? Belaunaldi berriak sozializatzeko hezi behar diren gizakiaren nortasunaren alderdiak zer dira?

Ikaslearen garapenarekin lotutako gaitasun tipologiak hierarkizatu edo kategorizatu beharko bagenu, bi multzo handi zehaztuko genituzke:

-Banakakoaren garapenera gehien lotutako tipologiak: gaitasun kognitibo eta afektiboak buruz ari gara. Hauek itxura psikologikoagoa daukate eta batez ere ikasleen eremu pertsonalean kokatuta geratzen dira.

-Gizabanakoaren inguru sozialarekin lotutako kategoriak: osasunera, ekologiara, komunikaziora, gizarteratzerara eta ekintzaitzara lotutako gaitasunak. Trebetasun horiek komunitatearekin, bizitzeko hainbat moduekin eta ohiturekin, inguruarekin eta oro har gizartearekin lotune estuagoa daukate.

Grafiko honetan ikus daitekeen moduan, inguru sozialera lotutako gaitasunen pisu espezifikoa, curriculum proposamen honetan, kontuan hartzeko modukoa da. Ikasleek gaitasuna erakutsi behar dute beraien bizitzako bi alderdi garrantzitsuetan: banakakoa eta soziala.



Dimentsio individualen eta sozialen araberako gaitasunen sailkapena.



Ondoren aurkezten diren garapen esparruak euskal herritarraren erabateko heziketa lortzeko beharrezko gaitasunak sustatzeko zuzenduta daude.

2.1.-Esparru kognitiboa

Gaitasun kognitiboak, ziurrenez, derrigorrezko irakaskuntzan gehien lantzen direnak dira. Gaitasun ezberdinen artean oreka errespetatzea beti ere gomendagarria izan arren, hezkuntzan gaitasun kognitiboak daukaten berariazko pisua kontuan hartzeko modukoa dela ere egia da. Ezagutzaren garapenak eskema eta egitura mental berriak eta zailagoak eraikitzea dakar, arazoak konpontzeko, fenomeno sozialen eta historikoen kausak aztertzeko eta deskribatzeko, kontzeptuak lotzeko eta identifikatzeko, zenbait egoeren ezaugarriak eta berezitasunak zehazteko, zenbait arazori algoritmoak ezartzeko, egoerak irizpide batekin deskribatzeko, objektuak, sinboloak eta pentsatzeko erak bereizteko, ikerketa xumeak egiteko, informazio garrantzitsua sailkatzeko eta aurkitzeko, jarrerak eta erabakiak argumentatzeko eta arrazoitzeko, ikasten ikasteko, etab. Gaitasun mentalen garapena banakoaren prestakuntzan lehen mailako helburua da.

2.2.-Garapen fisikoaren, ekologiaren eta osasunaren esparrua

Bizitza kalitatea egunero praktikan jartzen diren ohituren mende dago. Gizakiaren organismoaren funtzionamendua ulertzea eta prebentzio-neurri egokiak hartzea (elikadura, higiena...) apurka-apurka gure osasuna hobetzeko ezinbesteko gaitasunak dira. Horretarako derrigorrezko irakaskuntzan gaixotasunak saihestera, ingurumena errespetatzera, kontsumo arduratsuekin lotutako jarrerak mantentzera eta gure gorputzaren eta inguru naturalaren aukerez eta



potentzialtasunaz goatzera eramaten duten jarraibide guztiak landu behar dira.

2.3.-Afektibitatearekin lotutako esparrua

Osagai afektiboak alderdi emozionalak eta sentimenduei, jarrerei eta interesei loturiko alderdiak ere hartzen ditu. Esparru horretako gaitasunak autoestimuekin, nortasunaren autoafirmazioarekin, autokritika gaitasunarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin, estereotipoak gainditzearekin, aurreiritzien eta estigmen deskodeketarekin, inhibizioak gainditzearekin, interes eta premia pertsonalen sustapenarekin, konfidantzarekin, gustuak eta zaletasunak lantzearekin, besteenganako esker onaren eta adetasunaren adierazpenarekin, bizitzako adierazpen atsegingarriak gozatzearekin, giza-baloreekiko sentsibilitatearekin, eta abarrekin lotutako elementuak nabarmentzen ditu.

2.4.-Komunikazio esparrua

Informazioaren eta komunikazioaren arora moldatzeak zenbait hizkuntza ezagutzea eta dominatzea eskatzen du. Atzerriko hizkuntzez eta hizkuntza koofizialez gain, egungo hezkuntza sistemak ulermenera, harreman naturalak sustatzera eta ezagutza aldatzera eramaten duten edozein ekimen mota sustatu behar du. Ikasleak ahozko komunikazioarekin zein ahozkoa ez denarekin lotutako zenbait gaitasun menderatu, ahozko eta idatzizko egoera komunikatiboetan zein inguru birtualetan eraginkortasunez moldatu, hizkuntza literarioaz gozatu, etab. egin behar du.

IKTak, hizkuntzak, dramatizazioa, musika, idazketa, ahozkoa ez den lengoaia, gorputz adierazpena, sormen adierazpenak, etab.



komunikazioari lotutako zenbait errealitate dira. Halere, lengoia hauek gero eta konplexuagoak dira. Estereotipatutako publizitate mezuek, kodeak modu sinplistan erabiltzeak, albisteen tratamenduak, etab., ikus-entzuneke alfabetazioaren eta alfabetazio digitalaren hartze selektiboak eta kritikoak zer garrantzitsuak diren jakinarazi behar dizkigute.

2.5.-Erakundeetan eta gizartean taldeen sartze eta harremanetarako esparrua

Hainbat hezkuntza eta gizarte sektorek harremanetarako esparruaren garrantzia etengabe nabarmentzen eta goraipatzen dute. Lagunekin eta zenbait taldeekin elkarrekintzak gure bizitza kalitatea aberasten du. Ikasgelan lanean ari direla, denbora-libreko momentuetan (arte, kirola, kultura...), etab., kideekin giro positiboa izateak harreman sozialei, gatazkei eta jokabide disruptiboek modu konstruktiboan aurre egiteko adierazpen-estrategiak eskatzen ditu. Ikastetxean bizitzak, zenbait esparrutako eskolako lanak eta jolaserako unek elkarrekin bizitzeko eta besteekin harremanetan jartzeko zenbait aukera ematen dituzte. Ikaslea familia-esparruan, lagunekin eta erreferentzia taldeekin (elkartek...), hurbileneke inguru fisiko, sozial eta kulturalean, etb. erantzukizunez eta autonomiaz moldatu behar da, bere berezko ezaugarriak eta berezitasunak sustatuz, baloratuz eta errespetatuz eta gizartearen zenbait kolektiboekin solidarizatuz.

2.6.-Ekintzailetzaren esparrua

Egungo gizarteak bizkor egiten du aurrera. Gure bizitzaren edozein alderditan egoera konplexuak eta zalantzarriak etengabe sortzen dira. Horregatik, beharrezkoa da ikasleak esfortzuan eta gainditzean hezte beraien helburuak eta grinak lortzeko, asoziazionismoa sustatzeko, proiektuak modu eraginkorrean eta arduratsuan kudeatzeko, egoera



problematikoak konpontzeko originaltasuna eta asmamena sustatzeko, jarrera malguak hartzeko, egoera zailtara moldatzeko, erabakiak hartzen ikasteko, alternatibak baloratzeko, faktoreak aztertzeko, etab. Ikasleek espiritu sortzailea, zalantzazko egoera ez ziurrei aurre egitea, egoera berezien aukerak baloratzea, eta azken finean, egoera berriak hasteari ekiten jakitea eta etengabe ikastea moduko ikasgaiak eraman behar dituzte beraien bizitzetara.

3.-DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZAREN GAITASUN NAGUSIAK

Derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan edozein ikaslek menperatu behar dituen gaitasunen arabera hausnartzerako orduan, egungo gizartearen eta etorkizunaren eskakizunak zeintzuk diren kontutan izan behar dugu. Lehenago, sozializazioa pertsona, familia, taldea eta komunitatearen arteko prozesu interaktiboa dela adierazten genuen. Eragile horiek ikasleen prestakuntza prozesuari aurre egiterakoan eskolak kontuan izan beharreko euskarriak dira.

Ondoren adierazten diren alderdiek trebetasun aukera zabala hartzen dute eta hezkuntzaren eta gure curriculumaren funtsezko helburua nahi dute lortu: euskal herritarraren pertsonalitatearen erabateko garapena. Derrigorrezko irakaskuntzaren gaitasun nagusiak aurrerago zehaztutako ikaslearen garapen esparruen arabera sailkatu ditugu:


3.1.-Esparru kognitiboa

Ziurrenez esparru honetako gaitasunak hezkuntzan errotze handiena daukatenak izango dira. Gizartean dagoen konplexutasunak trebetasun horien baliotasuna gaindimentsionatzen du. Derrigorrezko irakaskuntzan ikasleek zenbait abilezia menderatu behar dituzte gurea



bezalako gizarte hain korapilatsuan eta konplexuan elkarrekin bizitzeko eta moldatzeko gaitasuna hartzeko.

Esparru honetan funtsezkoak iruditzen zaizkigun gaitasunak, bereizketari, identifikazioari eta ezagutzaren kudeaketari eta egoera problematikoei daude, batez ere, loturik. Honela irudikatu daitezke grafikoki:



Derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan ikaslea ondoko hauetarako gai izan behar da:

A-Zenbait fenomeno eta egoera identifikatu eta aztertu maila zientifikoan, sozialean eta naturalean egoera esanguratsuen ikerketarako alde aurreko jarrera irekia eta positiboa lortzeko.

Gertaera eta problematika sozialek ikerketa eta bilaketa sistematikoari eta zorrotzari lotutako jarrerak martxan jartzea eskatzen dute. Ikasleek errealitatea aztertzeke eta sustraiak, faktore eraginkorrak eta era zientifikoko eta sozialeko zenbait egoera hausnartzeko, argudiatzeko eta azaltzeko arazoen kausak bilatzeko gaitasuna garatu



behar dute. Ikerketara eta esperimenez bideratutako jarrera mantentzeak errealitate eta esparru sozial zein zientifiko berriak aurkitzea ahalbidetzen du. Ezagutzaren zenbait esparruen inguruan analisirako eta ikerketarako jarrera ireki eta konprometitua duten ikasleak prestatzea lortzeak hezkuntza sistemaren lan ona legitimatzen du.

B-Ezagutza kudeatzen ikasteko zenbait informazioa bilatu, sailkatu eta lotu.

Eguno gizarteak informazio garrantzitsuak aztertzen eta biltzen, ordenatzen, sailkatzen, asimilatzen, eta, azken finean, ezagutza modu eraginkorrean kudeatzen dakiten herritarrak eskatzen ditu. Horretarako, informazio fluxuak modu eraginkorrean administratzeko gaitasuna (teknologia berrien, ikasketa tekniken, mapa kontzeptuzkoen, ikasten ikasten...) derrigorrezko heziketan zein bizitza osoan zehar lehen mailako gaitasuna bilakatzen da.

C-Lan hipotesiak eta dilemen, arazoaren eta eskolako, gizarteko eta eguneroko bizitzako egoeren aurrean balizko konponbideak neurtzeko eta balioztatzeko hobekuntza aukerak planteatzea eta aztertzea.

Ikaslea egoera konplexuak ahalik eta zehaztasun eta zorrotasun handienarekin adierazteko eta definitzeko gai izan behar da. Horretarako, beharrezkoa da modu estrategikoan pentsatzea eta premiazkoak ez diren ahaleginak txikiagotzea. Pertsona talde bat arazo baten existentziaren aurrean ados egon daiteke, eta, halere, arazo horri aurre egiteko moduan bat ez etortzea gertatu daiteke. Ikasleak zenbait gaien aurrean aukerak eta alternatibak planteatzen jakin behar du errealitatearen analisi sistematikoaren eta estrategikoaren arabera.



Dewey-n (1995) adierazpenen arabera pertsonak zintzilikako ondorioak hartzeko jarrera izateko moduan prestatu behar dira. Alegia, planteatutako hipotesiak berresten edo gezurtatzen duten argumentazioen eta arrazoiketen bilaketa eta ebaluazio metodoen inguruan trebetasunak lortzea.

D-Zeregin zehatzak burutzeko (egiten jakitea) eta arazoak, egoerak eta gatazkak arrakastaz konpontzeko kalkuluak eta balioztapenak egitea.


Ikasleak eragiketak, algoritmoak, prozedurak eta kalkuluak eta errealitatea irudikatzeko metodoak menderatu behar ditu alternatibak proposatzeko eta mahaigaineratutako problematiken egoeren aurrean konponbide egokiak martxan jartzeko (egiten jakitea).

E-Konponbide alternatiben egokitasuna egiaztatzeko arazoaren ebazpen prozesuetan jarraitutako prozedurak egiaztatu.

Ikasleak eguneroko bizitzan egindako edozer prozesuan edo jardueran garrantzitsuan jarraitutako urratsak egiaztatzen eta berrikusten ikasi behar du. Akatsari giza-idiosinkrasiaren elementu natural moduan aurre egiteak bizitzaren aurrean jarrera baikorra eta konstruktiboa hartzeraren eramaten gaitu. Prozesuak egiaztatzen eta nahasmenduak onartzen naturaltasuna erabiltzen jakiteak autobalioztatzeko eta eguneroko bizitzaren ohiko zein eskolako jarduerak gauzatzeko prozedurak hobetzeko aukera ematen du.

3.2-Garapen fisikoaren, ekologikoaren eta osasunaren esparrua

Esparru honen garrantzia ukaezina da. Gizakiaren organismoaren garapena eta funtzionamendu egokia norbere gaitasunak erabat garatzeko oinarritzko baldintza da. Ondorengo gaitasunak derrigorrezko irakaskuntzan garatu beharreko oinarritzko eskumenak jaso behar ditu:



Ondoren proposatzen diren gaitasunak batez ere prebentziora eta ikasleen gaitasun fisikoaren garapenera daude bideratuta.

A-Eguneroko bizitzan prebentzio-ohiturak garatzea osasun egoera ezin hobea lortzeko.

Ikasleek eguneroko bizitza estiloen eta ohituren inguruan informazio zehatza izan behar dute beren ongizate fisikoa eta mentala hobetuko duten neurri eta xedapen egokiak hartzeko. Ariketa neurrian eta maiz egitea, atsedenerako (lo egitea, aisia...) eta erlaxaziorako ohiturak (arnasketak, luzapenak...), elikadura-jarraibideak, higiene pertsonalari dagozkion aholkuak, azterketa medikoak, etab. Pertsonen bizitzakalitatea eta osasuna optimizatzen duten praktikak eta ohiturak dira.



B-Ingurumenarekiko giza-jokabideak ebaluatzea osasun pertsonalean izan ditzaken ondorioak aztertzekeo.

Gizarteak ingurumen gaiekiko adeitasuna izango duten herritarrak prestatu behar ditu, baita ingurumenak osasunean eta ongizate pertsonalean sortzen dituen ondorioei buruz ohartarazi ere. Horregatik, ikasleak ingurumenaren zaintzarekin engaiatutako kideak izan behar dute, beraien bizi-inguruaren zati baita. Derrigorrezko irakaskuntzak ikaslea osasuna-ekologia binomioa sustatuko duen edozein ekimen motaren alde jartzeko hezi behar du.

C-Momentu zehatz eta egokietan norbere burua proban jartzea gaitasun fisikoak (psikomotorrak, pertzepziozkoak, koordinatuak...) eta mentalak (gainditzea, kontzentrazioa...) garatzeko.

Ikasleak gaitasun fisikoak, pertzepziozkoak eta koordinatuak ahalik eta gehien garatu behar ditu. Gainera, zenbait momentutan bere burua proban jartzen jakin behar du bere egoera fisikoa eta mentala balioztatzekeo (erronka txikiei aurre egin eta gainditzea...), muga eta gaitasun nabarmenenak ezagutzeko eta hobetze aukerei buruz kontziente izatekeo.

D-Zenbait bizitza estilo aztertzea eta balioztatzea pertsonen osasunean izan daitezkeen ondorioak kontuan hartzekeo eta ebaluatzekeo.

Bizitza estiloak osasunaren, edo alderantziz, arazoaren eta gaixotasunen bezpera dira. Ikasleek gizarte ohitura ezberdinak aztertu behar dituzte ongizatean izan ditzaketen ondorio zuzenak balioztatzekeo. Egoneko bizitzak, substantzia kaltegarriak kontsumitzeak, gehiegizko tentsioak, lan erritmo estresagarriak, aisialdi arduragabeak, etab., pertsonen ongizate fisikoan eta psikologikoan alboko ondorioak dauzkate.




E-Parte-hartze protokolo ezberdinak burutzea eta garatzea (lehen sorospenak, ebakuazioak, bide-jokaera, erlaxazio ariketak...) egoera zehatzetan eta momentu estresagarrietan modu egokian jokatzeko.

Garrantzia handiko momentuetan moldatzen jakitea pertsonak daukan gaitasunaren adierazgarria da. Ikasleek bizitzan gertatu daitezkeen momentu garrantzitsuetan (zein kritikoetan) modu zehatzean, ordenatuan, zuhurrean eta eraginkorrean jokatzeko jakin behar dute.

3.3.-Esparru afektiboa

Baloreak eta jarrerak gizakiaren garapena bideratzen duten bektoreak dira. Berriazko hierarkia balore zehatza definitzea eta barneratzea derrigorrezko irakaskuntzaren oinarritzko helburuetakoa da. Ondo finkatutako kode etikoa izatea besteekin jarrera sozial adeitsua eta ongizate pertsonala garatzeko baliabiderik onena da. Derrigorrezko irakaskuntzan ikasleak garatu beharreko berriazko jokabideak ondoren adierazten direnak dira:





A-Maila indibidualean eta kolektiboan norbere lorpenak baloratzea autokontzeptu sendoa eta autoestimua orekatua garatzeko.

Ikasleak bere lorpenak ikasi eta onetsi behar ditu (pertsonalak zein taldekoak), alegia, bere ezaugarriak eta alderdi positiboak balioztatu eta hobetu behar ditu etengabe. Autoestimua pertsona batek bere buruaz pentsatzen eta sentitzen duena da. Aldi berean garatu beharko ziren hiru korronteren bitartez sustatu daiteke:

-Jasotako baieztapena: besteek ematen diguten arreta eta afektua onartzen ohitzea da.

-Norbere baieztapena: norbere estimuaren, barne komunikazio adiskidetsuaren, barne elkarrizketa eragilearen, autobarkamenaren, gure izate pertsonalaren batasunean oinarritutako gure aberastasunaren kontzientziaren eta gure lorpenen esker-sarien ohitura landu behar dugu.

-Partekatutako baieztapena: alegia, besteen autoestimuen iradokitzaileak izaten ikastea, benetako estimua, onespina eta arreta emanaz, kideen gogo-aldartea eta motibazioa hobetzen laguntzeko.

B-Baloreen hausnarketa eta argitzapen prozesuak garatzea errespetu, sentsibiltate, irekitze eta enpatia jokaerak sustatzeko.

Ikasleak bizitzaren momentu on eta txarrak kideekin eta oro har beste pertsonekin aditasunez eta enpatiaz partekatzen jakin behar du. Alegia, beste iritziekiko jarrera hartzailea eta irekia eta kideekin adeitsua eta abegitsua izan behar du, eta, entzutea sustatu, bestearekin sintonia mantendu, partekatzen eta esperientziak baloratzen ikasi eta beste pertsonen arazoekin, zailtasunekin eta arrakastekin sentsibiltatea eta solidaritatea adierazi behar ditu. Horretarako, ikasleak bizitzan zein jarrerari ematen dien garrantzi nagusia bereizi eta norbaiten alde egin behar dute, kode etikoaren jarraibide garrantzitsuenak zeintzuk diren



bereizi, eta, azken finean, baloreen hausnarketa eta azalpen prozesuak garatzeko prest egon behar dute.

C-Proiektu pertsonalak garatzeko erronkak planteatu eta norbere helburuak finkatu eta bizitzaren aurrean jarrera positiboa izan.

Bizitzaren aurrean zentzuzko baikortasun jarrera izateak arazoak modu etikoan eta konstruktiboan aboratzeko joerak mesedegarriak dira. Ikasleak bere planteamendu propioak eraikitzen, transformatzen eta aldatzen jakin behar du, baita ibilbide pertsonalaren autoanalisian eta hausnarketan oinarritutako jarreraren bidez bere existentziari zentzua emango dioten helburuak finkatzen ere.

Jarraibide etikoen mantenimenduan oreka emozionalak zeregin garrantzitsua dauka. Bizitzako ezbeharrei aurre egiten, bulkadak modu arrazionalen kontrolatzen, momentu zailtan jarrera lasaiak hartzen eta transmititzen eta arazoak neurrizko aldarte baikorrekarekin eta zuhurrarekin ekiten jakitea garrantzitsua da.

D-Identitate propioa eraikitzea eta barneratzea beste errealitateekiko, kulturekiko eta herriekiko adeitasunezko jarrerak mantentzeko.

Ikaslea bere identitatearekiko eta bere kulturaren ezaugarriekiko eta berezitasunekiko kontziente izan behar da. Gainera, bere inguru hurbilean eta munduan oro har existitzen diren adierazpen kulturalenganako eta beste errealitateenganako errespetua adierazi behar du.

E-Lorpen, esfortzu eta gainditze pertsonala sustatuko duen estrategien inguruan hausnarketa egin eskolako eta eguneroko bizitzako zenbait gorabehereri bakarka eta taldean aurre egiteko.




Ikaslea egoera zailei, frustrazioei eta bizitzako momentu zailei aurre egiteko prest egon behar da. Ikasketek eta egunerokotasunak sortzen dituzten arazoak, oztopoak eta erresistentziak autodisiplina lantzea eskatzen dute. Ikasleak esfortzuan, ohituren eta klixeen aldaketa arrazoituan, neurridun exigentzian, gainditze pertsonalaren bitartez lortutako balorazioan, motibazioaren sustapenean eta lan sistematikoan hezi behar ditugu.

3.4.-Komunikazioaren esparrua

XX. mende bukaeran eta XXI.aren hasieran komunikazioak aurrekaririk gabeko iraultza izan du. Globalizazioaren fenomenoak informazioaren kudeaketak eta komunikazio mota ezberdinen ekoizpenak goieneko maila lortzea sorrarazi dute. Esparru honetan garatu behar diren gaitasunak zabaltasun handia adierazten dute momentu honetan existitzen den komunikazio mota kopuru handiagatik (hitzezkoak, ez hitzezkoak, ahozkoak, idatziak, digitalak, artistikoak, estetikoak, etab.).

Derrigorrezko irakaskuntzan ikasle batek menderatu behar dituen gaitasun nagusiak adierazten ditugu ondoren:



A-Beste pertsonekin eta kolektiboekin zenbait ingurutan eta hainbat kanalen bitartez elkarrekin jarduteko modu eraginkorrean komunikatzea.

Derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan ikaslea, gutxienez hiru hizkuntzetan mintzatu ahal izan behar da (koofizialen eta atzerrikoen artean). Gainera, sentimenduak, emozioak eta elementu estetikoak adierazteko zenbait formei lotutako trebetasunak eta ezagutzak izan behar ditu (musika, artea, hitzezkoak ez diren lengoaiak, etab.). Horri lotuta, komunikazioa sortzen den ingurura eta hartzailera egokitutako



mekanismo linguistikoak eta ez linguistikoak sailkatzeko gaitasuna garrantzitsutzat jotzen da.

B-Mezuak modu kritikoan eta konstruktiboan aztertzea eta interpretatzea modu egokian argudiatutako iritzi pertsonalak garatzeko.

Komunikabideen (idatzizko prentsa, albistegiak...) eta oro har mezuen eraginkortasun handia ez da oso eztabaidagarria gure gizartean. Informazioaren manipulazioa, estereotipoen zabalkundea, publizitatean islatutako estigma eta aurreiritzi sozialak, mezu subliminalak, eta abarrek komunikabide hauek zabaltzen duten ageriko edo ezkutuko adierazpenen burutsuak eskatzen dute.

C-Komunikazio modu ezberdinekin gozatzea eguneroko bizitzako inguruetan lengoaien eta adierazpenen erabilpena sustatzeko.

Adierazpen modu ezberdinekin gozatzea (ahozkoa, grafikoa, idatzizkoa, digitala, ez hitzezkoa...) bizitza errealean kode horiek erabili ahal izateko gaitasun oso garrantzitsua da.

D-Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia erabiltzea teknologia horiekiko jarrera kritikoa, irekitasuna eta interesa sustatzeko.

Derrigorrezko irakaskuntzaren bukaeran, ikasleak, gutxienez, testu prozesadorea, kalkulu orria, datu basea eta informazioa irudikatzen moduren bat menderatu behar du. Gainera, ikuste-inguruneak, Internet (bilaketak egin...) eta txatarekin eta posta elektronikoarekin lotutako eragiketak arazorik gabe erabili behar ditu.


E-Erabilpen linguistikoak eta materien berariazko terminologia menderatu inguru, momentu eta jarduera egokietan zuzen erabiltzea sustatzeko.



Ikasleak derrigorrezko irakaskuntzan ematen diren zenbait eremuetako oinarritzko kontzeptuak eta nozioak erantzukizunez erabili behar dute. Ikasleak ezagutza eremu bakoitzeko terminologia zehatza eta oinarritzkoa zuzen ezagutu eta erabili behar izango du.

3.5.-Gizarteratzeko esparrua

Nortasunaren erabateko garapenak, beste alderdi batzuen artean, komunitatean integratzea dakar ondorioz. Herritarrak gizartearen kide arduratsu lez bere eskubideetaz gozatu eta bere betebeharrak gauzatu behar ditu. Helburu zabal hau lortzeko beharrezko gaitasunak soilik herritarrak hezteko gaitasunei loturikoak dira.





A-Harreman pertsonal adiskidetsuak garatzea eta gatazkak era konstruktiboan kudeatzea gelan, ikastetxean eta bizitzeko inguruan elkarrizketa eta bizikidetza sustatzeko.

Bizikidetzarako ezinbestekoa da ikasgelako, ikastetxeko edo inguru hurbileko kideekin gutxienez adeitasunezko harremanak izatea. Gizakia izate soziala da, alegia, nortasuna erabat garatzeko besteekin jardutea beharrezkoa du. Horregatik, "sareak" eta harremanen egiturak (adiskideak) sortzeko, planteamenduak eta ikusmoldeak adosteko, desadostasunen aurrean bitartekari izateko, zenbait alderdi negoziatzeko, ekimenak ituntzeko, jarrerak hurbiltzeko, eta abarreko joera duten jarrerak oso garrantzitsuak izaten dira eguneroko bizitzan.

B-Esfortzuak batzea guztien helburuen inguruan taldeko lana sustatzeko eta eskola eta gizarte egoerak hobetzeko lanetan parte hartzea.

Ikaslea ikasgelako, taldeko, ikastetxeko eta komunitateko beste kideekin partekatutako helburuen inguruan xedeak bateratzeko gai izan behar da. Horretarako, ekimenen, kooperazioaren eta solidaritatearen planifikazioan oinarritutako gaitasunak ezinbestekoak dira ikaslearentzat. Egungoa moduko mundu globalizatu batean, lankidetzan arreta jartzen duten estrategiak ezinbestekoak dira.

C-Pertsonen, kolektiboen, kulturen eta arrazen arteko ezberdintasunak modu positiboan baloratzea, tolerantzian eta askatasunean oinarritutako bizikidetza sustatzeko.

Ezberdintasunarekiko errespetuak pertsonen eta herrien berezko identitatea legitimatzen du. Pentsatzeko era dibergenteekiko tolerantzia, arraza, sexua, sinesmenak edo ideologia edozein izanda ere herritarren eskubideen eta betebeharren berdintasuna onartzeak, askatasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako bizikidetza bermatzen du.



D-Giza harremanak eta irekitasuna sustatzea bizi den komunitatearen garapenean parte hartzeko (ikasle bakoitzaren gaitasunen arabera).

Gazteek zenbait kolektiboekin, helburuekin, egoerekin eta proiektuekin jarrera zailak hartu behar dituzte beraien bizitza kalitatea eta besteena hobetzeko. Arazo sozial zailek partekatutako konponbideak aurkitu behar dituzte elkarteen, kolektiboen, herritartasunaren eta Administrazio beraren ekimen etikoaren, taldekoaren eta koordinatuaren bitartez.

E-Arau sozialen baliozkotasuna aztertzea, kritikatzeta eta balioztatzea kode etiko eta moral zehatza hartzeko eta komunitatean erabat sartzeko.

Ikasleak erabateko herritartasunaren garapenean hezi behar dira gizarteak onartutako kode moraletan oinarritutako ekimenak sustatzeko. Eskolaren funtzioa ez da bakarrik ikaslearen lan-integrazioa edo integrazio ekonomikoa izan behar. Hezkuntza guzti hori baino zerbait gehiago da. Parte-hartzen deneko komunitatearen ondare soziala eta kulturala nori bereganatzea eta printzipio demokratikoetan oinarrituz elkarrekin bakean bizitzea sustatzeko joera daukaten ekimenak eta jarrerak hartzea dakar herritartasunak.


3.6.-Ekintzailetzaren esparrua

Askotan esan izan da gizarte oso dinamikoan bizi garela, eta, gainera, gizarte horrek oso azkar eboluzionatzen duela. Gure belaunaldiak ez du jakin izan ongi definitutako eta justifikatutako bizikidetzaren modeloa eraikitzen. Egungo joerak zalantzarik betetako



bideetatik doaz. Gaur, ziurtasunak utopia hutsak dira eta planteamendu zientifiko, ekonomiko, kultural edo etiko-filosofikoen behin-behinekotasuna etengabe gertatzen da. Gizarte aldakorrean eta izugarri lehiakorrean bizi gara, etengabeko metamorfosian.

Jokaera honetako inguru konplexu honen aurrean, hezkuntza sistemak ikasleak prestatu behar ditu ezaugarri hauetako gizartean erabat sartzeko. Ikasleak garatutako gaitasunak gizartearen egoerarekin eta aurrerago aipatutako berezitasunekin bat etorri behar dira. Ondoren aipatzen dugun trebetasun proposamenak helburu garrantzitsu hori lortu nahi du:





A-Zenbait egoera pertsonal eta sozial zein familiarako eta eskolako egoerak aztertu, hainbat planteamenduen behin-behinekotasuna eta zalantza modu konstruktiboan eta positiboan balioztatzeko.

Zenbait esparru sozialetan egonkortasun egoerak (ekonomian, politikan, zientzian...) ia ez dira existitzen. Segurtasun faltak, planteamenduen hauskortasunak eta bizitzako zenbait esparruetako ikuspuntu ezberdinen arteko kontraesanek tentsioa eta urduritasuna sortu ordez hobekuntzarako eta aldaketa positiborako aukerak bezala ulertu behar dira. Ikasleak behin-behinekotasuna eta zalantza gizarteari atxikitako berezitasun moduan hartu behar ditu; gainera, egoera horiei modu konstruktiboan ekiteko jarrerak azaldu behar dituzte.

B-Parte-hartze egitasmo pertsonalak diseinatu, gainbegiratu eta ebaluatu zalantzazko egoerei heltzeko eta horiek gainditzeko.

Ikasleak egoera problematikoei aurre egiten jakin behar dute modu sistematikoan eta metodikoan. Horretarako, eskolako, familiarako, eta abarreko zereginak ondo burutzeko, ekimenen eta proiektuen planifikazioa (beharrak identifikatzea, zereginak banatzea eta sekuentziazatzea, gainbegiratzea, denbora kudeatzea...) bizi garen gizarterako ezinbestean egin beharreko lana da.

C-Egoera problematikoen aurrean ideia sortzaileak osatzeko ekimenak arakatu, esperimentatu eta adierazi.

Sormena eta ekimena ikuspegi berriak sortzeko gaitasun egokiak eta aproposak dira. Egungo gizarteak ikuspuntu originalak eta hezkuntzaren, gizartearen, politikaren eta kulturaren zenbait arazoei ulertzeko modu eta esparru ezberdinak emango dizkioten planteamenduak behar ditu.



D-Pertseberantzia eta iraunkortasun jarrerak garatzea lanean eskolako eta bizitzako jardueretan nork bere burua hobetzeko gaitasun pertsonala sendotzeko.

Planteamendu sortzaileak, sarritan, errealitatearen etengabeko azterketa sistematikoaren ondorio izaten dira. Asmatzaile eta zientifiko handiak horren adierazgarri ezin hobekak izango dira. Originaltasunaren gakoa, neurri handi batean, prestakuntza oinarri sendo batean, lanari ekitean eta iraunkortasunean dago. Gizartean sortzen diren gorabehera handiek aldaketenganako eta transformazioenganako etengabeko moldaketara bideratutako prestakuntza eskatzen dute. Horregatik, zenbait zirkunstantzien aurrean pertseberantzia eta malgutasuna izatea oso garrantzitsua da eguneroko bizitzak ekartzen dituen erronkei aurre egiteko.

E-Bakoitzaren zereginen inguruan kalitate adierazgarriak definitu eta lortu ikasleak ondo egindako lanaren inguruan sentsibilizatzeko.

Sozializazio esparru ezberdinetan gaitasun hau lantzen hastea komenigarria da (eskola, familia, komunitatea, etab.). Prozesuekiko eta emaitzekiko zein ondo egindako lanarekiko sentikorrak izatea, eskolaren, gizartearen eta profesionalen jardueretik gustua sustatzen duten jarrerak hartzea, optimizaziora bideratutako ohiturak hartzea, pertsona adituen eta kolaboratzaileen gomendioak eta oharak baloratzea eta horiek errespetatzea eta entzutea, jarrera irekiak mantentzea, etab. pertsonaren etengabeko auto-hobekuntza sustatzen duten jarrerak dira.

F-Egungo eta gizarteko zenbait alderdi aztertzea bizitzan etengabeko ikaskuntzarako jarrera baikorrak mantentzeko eta sustatzeko.

Lehenago aipatutako gaitasun askok etengabeko prestakuntzaren aldeko jarrera eskatzen dute. Herrialde garatuetan, derrigorrezko irakaskuntzak eta derrigorrezkoaren ondokoak ez dute bermatzen gizartearen zenbait esparruetan erabat sartzea (lana, integrazio soziala



lortzea...). Egoera honek etengabeko trebakuntzaren eta birziklapenaren joerako ekimenak hartzera behartzen ditu herritarrak. Prestakuntza bizitzako zenbait etapetan fenomeno adierazgarri moduan ulertzea etorkizun eta bizitza kalitate hobe baten aldeko apustua egitea da.